



2004ko apirilak 19 astelehena
71 Zenbakia

Lunes 19 de abril de 2004
Número 71

LABURPENA — SUMARIO

	<u>Orrialdea</u>		<u>Página</u>	
3	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak.	7.201	3 Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.....	7.201
4	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.....	7.225	4 Administración del T.H. de Gipuzkoa.....	7.225
5	Estatuko Administrazioa.....	7.228	5 Administración del Estado.....	7.228
6	Autonomia Erkidegoko Administrazioa.....	7.234	6 Administración de la Comunidad Autónoma.....	7.234
7	Udal Administrazioa.....	7.235	7 Administración Municipal.....	7.235

3

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

3

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUA.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiak, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2004ko apirilaren 7a.—Joxe Joan Gonzalez de Txabbarri Miranda, diputatu nagusia.

(3607)

(3301)

HITZAURREA

Azken hamar urteetan aurrerapen handia egin dute irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak. Gizartea gero eta gehiago jabetu da onura orokorreko jardueretan sektore pribatuak parte

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

NORMA FORAL 3/2004 de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 3/2004 de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo» a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 7 de abril de 2004.—El diputado general, Joxe Joan Gonzalez de Txabbarri Miranda.

(3607)

(3301)

PREAMBULO

La última década ha sido testigo del importante desarrollo conseguido por las entidades privadas sin fines lucrativos. El crecimiento de la conciencia social acerca de la necesidad de la

hartu beharraz eta sektore publikoari lagundu beharraz, askotan sektore publikoa ez delako iristen Ongizatearen Estatua deritzanaren babesean sortu diren premia gero eta handiagoei komeni den neurrian erantzutera. Horren ondorioz, entitate berriak sortu dira eta herritarren aldetik horienganako laguntza gehitu da.

Aurrerapen horrekin, ordea, 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Araua, Ekimen Pribatuari Interes Orokorreko Jardueretan Parte Hartzeagatik Pizgarri Fiskalak emateari buruzkoa, atzeratuta geratu da, eta honako foru arau berri hau, gai horretako araudi zaharraren ordezkari beste modernoago bat ezartzera dator, helburu hauekin: Alde batetik, bere eremuan sartzen diren entitateei segurtasun juridikoa eskaintzea; beste batetik, araudiaren aplikazioari begira entitate horiek bete beharreko baldintzak malgutzea; eta, bestetik, gizarteak onura orokorreko jardueretarako egiten dituen ekarpenei ematen zaien zerga tratamendua hobetzea.

Foru arau honek hogeita hamaika artikulua ditu, eta hiru titulu gigituratuta dago. I. tituluan, foru arauaren xedea, aplikazio eremua eta ordezkari araudia jaso dira, soil-soilik. Foru Arauak beste titulu zabal bana eskaintzen die bere xedea osatzen duten bi eremuei, hau da, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari titulu bat, eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari beste bat.

II. titulua, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena arautzen duena, hiru kapitulutan banatuta dago. Lehenbizikoak zehazten du zer baldintza bete behar dituzten fundazioek eta herri onurakotzat hartutako elkarteek, foru arau honen ondorioetarako irabazi asmorik gabeko entitateetat hartuak izan daitezkeen eta, ondorioz, foru arauak ezartzen duen zerga erregimenean sartzeko aukera eduki dezaten.

Aukera hori nahi duenak egin dezake, ezarritako baldintzak bete gero, eta horretarako nahikoa du Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari hala adieraztea. Aurrerantzean ez du, beraz, lehen aplikatzen zitzaion erreguzko izaera.

Betebeharren artean nabarmenena da, aurreko araudian gertatzen zen bezala, entitateak bere ustiapen ekonomikoetatik eta ondasun edo eskubideen eskualdaketatik etorritako errenten % 70 gutxienez entitatearen xedeetarako erabili behar duela, nahiz eta berrikuntza bat badagoen, horietatik salbuetsita gertatuko baitira entitateak bere berezko jardueran erabiltzen dituen ondasun higiezinak besterentzeak ekarritako diru kopuruak, baldin eta xede bera izango duten higiezinetan inbertitzen badira berriro.

Aipatutako betebehar hori betetzeko lau urteko epea ezartzen da, baina nabarmendu behar da salbuespena egiten dela hiru urte baino gehiagoan eduki diren balioen kostu bidezko eskualdaketatik etorritako errenten kasuan, eta horrelakoetarako hamar urteko epea ezartzen dela.

Oro har, entitateek ezin dituzte beren sortzaileak edo zuzendaritza organoetako kideak, edo haien familiakoak, entitatearen jardueren hartzaile nagusi egin, ezta halakoen aldeko tasun berezirik agertu ere.

Gainera, bai aipatutako zuzendaritza organoetako kideak, eta bai, entitatea merkataritza sozietateren bateko kapitalean partaide bada, entitatearen ordezkari diren administratzaileak, doan egin behar dute beren karguari dagokion lana, nahiz eta lan horrek lekarzkiekeen gastuengatik ordaina jaso dezaketen.

Entitatea desagitekotan, desagindako entitatearen ondare oso-osoak joan beharko du, edo Foru Arauan ezarritako baldintzen arabera mezenasgoaren onuraduntzat hartutako beste entitate baten eskuetara, edo onura orokorreko xedeak dituen eta fundazioa ez den entitate publiko batenetara.

participación del sector privado en las actividades de interés general, en apoyo de un sector público en ocasiones incapaz de cubrir las crecientes necesidades sociales surgidas al amparo del denominado Estado del Bienestar, ha impulsado tanto la aparición de nuevas entidades como el aumento del apoyo ciudadano a las mismas.

Resultado de este avance es el desfase sufrido por la regulación aprobada por la Norma Foral 5/1995, de 24 de marzo, de Incentivos Fiscales a la Participación Privada en Actividades de Interés General, por lo que la presente Norma Foral viene a sustituir dicha normativa por otra más moderna, con los objetivos de ofrecer seguridad jurídica a las entidades integradas en su ámbito, flexibilizar las condiciones a cumplir por las mismas para la aplicación del régimen y mejorar el tratamiento fiscal aplicable a las aportaciones sociales destinadas a la realización de actividades de interés general.

La Norma Foral consta de treinta y un artículos estructurados en tres Títulos. El Título I, recoge, exclusivamente, el objeto, el ámbito de aplicación y la normativa supletoria, la Norma Foral dedica dos amplios Títulos a regular, respectivamente, los dos ámbitos constitutivos de su objeto, a saber, el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y los incentivos fiscales al mecenazgo.

El Título II, encargado de regular el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos, queda distribuido en tres capítulos. En el primero de ellos se especifican las condiciones que han de cumplir las fundaciones y las asociaciones declaradas de utilidad pública para poder ser consideradas entidades sin fines lucrativos a los efectos de esta Norma Foral y, por lo tanto, poder optar al régimen fiscal establecido en la misma.

La opción tiene carácter voluntario siendo suficiente, cumplidas las condiciones establecidas, comunicar la misma al Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas, desapareciendo por lo tanto el carácter rogado anteriormente aplicable.

Entre los requisitos establecidos sigue destacando, como ocurría en la regulación anterior, el de la obligatoriedad de destinar un mínimo del 70 por 100 de las rentas procedentes de sus explotaciones económicas y de la transmisión de bienes o derechos, a los fines propios de la entidad, constituyendo una novedad que se exceptúen las cuantías procedentes de la enajenación de bienes inmuebles en los que la entidad desarrolle su actividad propia cuando sean reinviertan en inmuebles con este mismo destino.

El plazo establecido para cumplir la obligación mencionada se fija en cuatro años, destacando como excepción las rentas procedentes de la transmisión onerosa de valores mantenidos durante más de tres años, para las que el plazo se dilata hasta los diez años.

Con carácter general, las entidades no pueden dispensar trato de favor ni tener como destinatarios principales de sus actividades a quienes las fundaron o formen parte de sus órganos rectores, ni a sus familiares.

Además, tanto los miembros de dichos órganos rectores como los administradores que representen a la entidad en las sociedades mercantiles de cuyo capital participe han de desarrollar su cargo de forma gratuita, aunque podrán ser compensados por los gastos que su labor les ocasione.

En los supuestos de disolución, el destino de la totalidad del patrimonio de la entidad disuelta habrá de ser una entidad considerada beneficiaria del mecenazgo de acuerdo con los requisitos establecidos en esta Norma Foral, o alguna entidad pública no fundacional con fines de interés general.

Azkenik, derrigorrezko betebeharra dute urtero memoria ekonomikoa egitea, bertan jasorik, kategoriaz kategoría eta proiektuz proiektu, ekitaldiko diru sarrerak eta gastuak, eta merkataritza sozietateetan duten partaidetza portzentajea.

II. tituluko II. kapituluan, Sozietateen gaineko Zerga irabazi asmorik gabeko entitateei nola aplikatuko zaien azaltzen da, eta, hasteko, hemen jasotzen ez den guztian Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua beteko dela ezartzen da.

Sozietate Zergan, salbuetsi egiten dira, ordainik eman gabe eskuratuta, sorburu hauetatik datozen errentak: Ondare higigarri nahiz higiezinetik etorriak, ondasun edo eskubideak eskuratzetik edo eskualdatzetik etorriak, eta salbuetsitako ustiapen ekonomikoen jardueratik etorriak, baita, errenta salbuetsietatik datozenak izanik, irabazi asmorik gabeko entitateei esleitze-koak direnak ere.

Ustiapen ekonomikoen jardueratik datozen errenetei trataera berri bat ematen die zerga erregimen honek, salbuetsi egiten baititu entitatearen helburu edo xede espezifikokoak betetzeko egiten diren jardueretatik datozen errentak, jarduerak izaera lagungarri edo osagarria badu ere. Horretaz esan behar da, jarduerak lagungarri edo osagarritzat hartua izateko, gehienez ere, kopuruz, entitatearen eragiketa bolumenaren %25 izan behar duela. Era berean, salbuetsita geratuko dira garrantzi txikiko ustiapenak, halakotzat hartuko direlarik 30.000 euro edo gutxiagoko eragiketa bolumena dutenak.

Oinarri ezargarriari %10eko tasa aplikatuko zaio, hau da, lehengo araudian zegoena bera.

III kapitulua osatzen duen udal zergei buruzko artikulua bakarrean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoenean salbuespenak egiteko zeuden muga batzuk kendu egin dira, eta Lurzoru Hiritarren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga salbuespen bat sartu da, irabazi asmorik gabeko entitateentzat.

III. tituluko mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen ditu, eta horien hartzaile izan daitezkeen entitateen zerranda ematen du.

Dohaintzen eta ekarpenen erregimen fiskalari buruzko atalean, berrikuntza gisa sartzen da, Sozietateen gaineko Zergari eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokienez, subjektu pasiboak direnek pizgarri fiskalak ematea bai eskubideen dohaintzari zein ondasun, eskubide eta balioen gaineko gozamen eskubide errealak eratzeari, hori guztia kontra-prestaziorik gabe, bai zerbitzuak doan eskaintzeari-«zerbitzuen dohainak» izendatu ohi direnak.

Kontzeptu horiengatik egingo diren kenkarien oinarria finkatu eta gero, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokion kuotan emaitza, dohaintza eta ekarpenen % 30eko kenkaria ezartzen da, eta % 25ekoa Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionean, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunentzat.

Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek eta establezimendu iraunkorra duten Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek egindako ekarpenak, berriz, indarrean dagoen tratamenduari jarraituz, partida kenkaridun izango dira, bi zerga horien oinarri ezargarria kalkulatzeko garaian.

III. kapituluan, mezenas jarduketak jakin batzuetan aplikatu daitezkeen zerga onurak azaltzen dira; zehazki, enpresek mezenasgoaren onuradun kalifikatutako entitateei onura orokorreko jardueretan laguntzeko lankidetzak hitzarmenetan eta onura oro-

Por último, se establece la obligatoriedad de elaboración anual de una memoria económica que incluya, ordenados por categorías y por proyectos, los ingresos y gastos del ejercicio y su porcentaje de participación en entidades mercantiles.

El Capítulo II del Título II trata de la especial tributación de las entidades sin ánimo de lucro en el Impuesto sobre Sociedades, comenzando por una remisión supletoria a la Norma Foral reguladora del mismo.

En este impuesto, se declaran exentas las rentas procedentes de los ingresos obtenidos sin contraprestación, de su patrimonio mobiliario e inmobiliario, de la adquisición o transmisión de bienes o derechos y del ejercicio de explotaciones económicas exentas, así como las que procediendo de rentas exentas hayan de ser atribuidas a las entidades sin fines lucrativos.

El tratamiento de las rentas derivadas del ejercicio de explotaciones económicas constituye una novedad del nuevo régimen fiscal, estableciéndose la exención para las que procedan de aquellas que se desarrollen en cumplimiento de su objetivo o finalidad específica, incluidas las de carácter auxiliar o complementario. A este respecto debemos señalar que tendrán la consideración de auxiliar o complementarias las actividades que supongan como máximo un 25 por 100 del volumen de operaciones total de la entidad. Asimismo, estarán exentas las explotaciones consideradas de escasa relevancia, definiéndose como tales aquellas cuyo volumen de operaciones no supere los 30.000 euros.

En cuanto al tipo aplicable a la base imponible, se mantiene el del 10 por 100, contenido en la normativa anterior.

En el artículo único que configura el Capítulo III, dedicado a los tributos locales, se suprimen ciertas limitaciones para la aplicación de las exenciones en los Impuestos sobre Bienes Inmuebles y sobre Actividades Económicas y se introduce una exención en el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana para las entidades sin fines lucrativos.

El Título III regula los incentivos fiscales al mecenazgo, estableciendo un listado de las posibles entidades destinatarias de los mismos.

En el capítulo relativo al régimen fiscal de las donaciones y aportaciones se introduce como novedad la concesión de incentivos fiscales, tanto a la donación de derechos y a la constitución, sin contraprestación, de derechos reales de usufructo sobre bienes, derechos y valores, realizada sin contraprestación, como a las prestaciones gratuitas de servicios, comúnmente denominadas «donativos de servicios», efectuadas por sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

Tras fijar la base de las deducciones por estos conceptos, se establece una deducción del 30 por 100 del importe de los donativos, donaciones y aportaciones a aplicar en la cuota del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del 25 por 100 en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes para los contribuyentes sin establecimiento permanente.

En cuanto a las aportaciones efectuadas por los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes para los contribuyentes con establecimiento permanente, siendo continuista con el tratamiento vigente, se configuran como partida deducible a efectos de determinar la base imponible de ambos impuestos.

El Capítulo III se dedica a los beneficios fiscales aplicables a diversas actuaciones de mecenazgo consistentes en convenios de colaboración empresarial en actividades de interés general con las entidades calificadas como beneficiarias del mecenazgo

korreko xedeetarako egindako gastuetan aplikatzekoak. Hor bada berrikuntza bat: Gastu kengarrietan lehen zeuden mugak ezabatu egin dira. Bestalde, dohaintzan emateko artelanak eskuratzeari ematen zaion trataerak bere horretan jarraituko du.

IV. Atalean, urteroko lehentasunezko zat jotzen diren mezenasgo jarduerak bete beharko duten araudia zehazten da, eta berrikuntza gisa, aurreko araudian zeuden mugak ezabatzeaz gain, interes publiko berezikoak diren gertaerei laguntza emateko programak sartzen dira.

Era berean, eta partaidetza pribatua lehentasunezko jardueretan sustatzearen, gaur egun dagoen kenkaria %18raino igotzen da; adierazitakoak, oinarri ezargaria zehazteko eraginetarako kengarria den partidatatzat hartzearekin batera, esan nahi du, errealtatean, egindako ekarpenaren %50 baino gehiagoko eragin fiskala dela.

Gai horri dagokionez, azken artikuluan, lehen aldiz, Estatuaren eta beste foru lurraldeen aldetik lehentasun aitortua duten jardueri eta aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programei begira oro har, elkarrekikotasun irizpide bat ezartzen du, baldintza soila izanik haien araudietan Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako jarduera eta programak aintzat hartzea.

Xedapen gehigarrien eginkizuna da, azkenik, alde batetik, artikulatu batzuk aldatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gainekoa, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gainekoa erregulatzen dituzten foru arauetan eta kooperatiben zerga erregimenari buruzkoan, eta, beste aldetik, berezitasun batzuk ezartzea aurrezki kutxen gizarte ekintzei, kirol federazioei, entitate erlijiosoei, eta Eliza Katolikoaren eta beste eliza, fede eta komunitate erlijiosoen zerga erregimenari aplikatzekoak.

I. TITULUA

XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA ORDEZKO ARAUDIA

1. artikulua. Xedea.

Foru arau honen xedea da bere baitan definitutako irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena arautzea, gizarte eginkizunari, jardueri eta ezaugarriei dagokienez.

Halaber, bere xedea da mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzea ere. Foru arau honen xedeetarako, mezenasgotzat hartzen da interes orokorreko jarduerak egitean parte hartzen duen ekimen pribatua.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru arau honetan xedatutakoa Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudiarekin lotutako subjektu pasiboei aplikatuko zaie, hala xedatzen baitute 1996ko uztailearen 4ko 7/96 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 2. artikuluan, 1998ko abenduaren 24ko 8/98 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 2. artikuluan, eta 1999ko apirilaren 26ko Foru Arauak, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 2. artikuluan.

3. artikulua. Ordezko araudia.

Foru arau honetan jasota ez dagoen guztian, Gipuzkoako zerga araudia aplikatuko da izaera orokorreaz.

y gastos realizados para los fines de interés general, introduciéndose como novedades la supresión de los límites anteriormente existentes respecto a los gastos considerados deducibles. Asimismo, se mantiene el tratamiento de las adquisiciones de obras de arte para oferta de donación.

En el Capítulo IV se establece el marco normativo en el que se desenvolverán las actividades consideradas anualmente prioritarias de mecenazgo y, como novedad, se suprimen los límites existentes en la normativa anterior, así como se introducen los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público.

Asimismo, y con el objeto de estimular la participación privada en actividades prioritarias, se eleva la deducción contemplada actualmente hasta un 18%, que unido al hecho de su consideración como partida deducible a efectos de determinar la base imponible, supone en la práctica un efecto fiscal superior al 50% de la aportación efectuada.

A este respecto, el último artículo fija, por primera vez, un criterio de reciprocidad con carácter general respecto a las actividades y programas declarados, respectivamente, prioritarias y de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público, por el Estado y otros Territorios Forales, siempre que en la normativa de estos se reconozcan las actividades y programas aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las Disposiciones Adicionales se dedican, por un lado, a modificar diversos artículos de las Normas Forales reguladoras de los Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas, sobre Sociedades y sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, así como la dedicada al régimen fiscal de las cooperativas, y por otro, a establecer las peculiaridades aplicables a la obra social de las cajas de ahorro, a las federaciones deportivas, a las fundaciones de entidades religiosas y al régimen tributario de la Iglesia Católica y de otras iglesias, confesiones y comunidades religiosas.

TITULO I

OBJETO, AMBITO DE APLICACION Y NORMATIVA SUPLETORIA

Artículo 1. Objeto.

La presente Norma Foral tiene por objeto regular el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos definidas en la misma, en consideración a su función social, actividades y características.

De igual modo, tiene por objeto regular los incentivos fiscales al mecenazgo. A efectos de esta Norma Foral se entiende por mecenazgo la participación privada en la realización de actividades de interés general.

Artículo 2. Ambito de aplicación.

Lo dispuesto en la presente Norma Foral será aplicable a los sujetos pasivos a los que resulte de aplicación la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en virtud de lo dispuesto en el artículo 2 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, en el artículo 2 de la Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el artículo 2 de la Norma Foral 2/1999, de 26 de abril, del Impuesto sobre la Renta de los No Residentes.

Artículo 3. Normativa supletoria.

En lo no previsto en esta Norma Foral se aplicará, con carácter general, la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

II. TITULUA

IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA
ERREGIMEN BEREZIA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

4. artikulua. *Irabazi asmorik gabeko entitateak.*

Foru arau honi dagokionez, irabazi asmorik gabeko entitateak joko dira fundazioak eta herri onurakotzat hartutako elkarteak, eta horrelakoen federazio eta elkarteak, baldin onura orokorreko xedeak badituzte, dagokien erroldan idatzita badaude, eta hurrengo artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

5. artikulua. *Irabazi asmorik gabeko entitateen beharkizunak*

Aurreko artikuluan aipatutako entitateak irabazi asmorik gabeko entitateak hartuko dira, foru arau honen ondorioetarako, baldin eta ondorengo beharkizunak betetzen badituzte:

1. Interes orokorreko helburuetarako, hurrengo errenta eta diru sarreraren ehuneko 70 gutxienez ematea:

a) Haien ustiapen ekonomikoen errentena.

b) Haien jabetzako ondasun edo eskubideak eskualdazean lortutako errentena. Errenta horiek kalkulatzeko, ez dira sartuko ondasun higiezinak ordain truke eskualdatzean lortutako errentak, higiezin horietan gauzatzen duenean berariazko xedeari lotutako jarduera, baldin eta eskualdaketaren zenbatekoa berrinbertitzen bada berariazko xedeari lotutako ondasun eta eskubideetan.

c) Beste edozein kontzeptu dela medio lortutako sarrerean, sarrera horiek lortzeko izandako gastuak gutxituta. Sarrera horiek lortzeko izandako gastuak, bidezkoa denean, hainbat gasturen zati proportzionalaz osatu ahal izango dira, sarrerak lortzeko baliagarriak diren neurrian: Kanpoko zerbitzuen gastuak, langileria gastuak, kudeaketako bestelako gastuak, gastu finantzarioak eta zergak. Kalkulu horretatik kanpo geratuko dira estatutuetako xedeak edo irabazi asmorik gabeko entitatearen helburua betetzeko izandako gastuak. Sarrerak kalkulatzeko, ez dira sartuko ondare-hornidura gisa hori eratzeko edo geroago jasotzen diren ekarpenak edo dohaintzak.

Irabazi asmorik gabeko entitateek ondare-hornidura edo erreserbak gehitzera zuzendu beharko dituzte gainerako errenta eta sarrerak.

Beharkizun hori betetzeko epea errentak eta sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieratik ekitaldi hori itxi ondorengo lau urtetara bitartekoa izango da, non eta hiru urte baino gehiagoan eduki diren balioen kostubidezko eskualdaketatik etortutako errentak ez diren, horrelakoentzat epea hamar urtekoa izango baita.

2. Jarduera ez izatea estatutuetan jasotako xedeari lotu gabeko ustiapen ekonomikoen garapena. Beharkizun hori beteta dagoela ulertuko da, estatutuetako xedeari lotu gabeko ustiapen ekonomiko ez-salbuetsien multzoak ekitaldiaren barruan izan duen eragiketa-bolumena ez denean entitatearen eragiketa-bolumen osoaren %40tik gorakoa, baldin eta ustiapen ekonomiko ez-salbuetsi horien garapenak ez baditu urratzen lehiakortasuna babesteko arauak.

TITULO II

REGIMEN FISCAL ESPECIAL DE
LAS ENTIDADES SIN FINES LUCRATIVOS

CAPITULO I. NORMAS GENERALES

Artículo 4. *Entidades sin fines lucrativos.*

Se consideran entidades sin fines lucrativos a efectos de la presente Norma Foral las fundaciones y las asociaciones declaradas de utilidad pública así como las federaciones y asociaciones de las mismas, que persiguiendo fines de interés general, se encuentren inscritas en el registro correspondiente y cumplan los requisitos establecidos en el artículo siguiente.

Artículo 5. *Requisitos de las entidades sin fines lucrativos.*

Las entidades a que se refiere el artículo anterior, que cumplan los siguientes requisitos, serán consideradas, a efectos de esta Norma Foral, como entidades sin fines lucrativos:

1.º Que destinen a la realización de los fines de interés general al menos el 70 por 100 de las siguientes rentas e ingresos:

a) Las rentas de las explotaciones económicas que desarrollen.

b) Las rentas derivadas de la transmisión de bienes o derechos de su titularidad. En el cálculo de estas rentas no se incluirán las obtenidas en la transmisión onerosa de bienes inmuebles en los que la entidad desarrolle la actividad propia de su objeto o finalidad específica, siempre que el importe de la citada transmisión se reinvierta en bienes y derechos en los que concurra dicha circunstancia.

c) Los ingresos que obtengan por cualquier otro concepto, deducidos los gastos realizados para la obtención de tales ingresos. Los gastos realizados para la obtención de tales ingresos podrán estar integrados, en su caso, por la parte proporcional de los gastos por servicios exteriores, de los gastos de personal, de otros gastos de gestión, de los gastos financieros y de los tributos, en cuanto que contribuyan a la obtención de los ingresos, excluyendo de este cálculo los gastos realizados para el cumplimiento de los fines estatutarios o del objeto de la entidad sin fines lucrativos. En el cálculo de los ingresos no se incluirán las aportaciones o donaciones recibidas en concepto de dotación patrimonial en el momento de su constitución o en un momento posterior.

Las entidades sin fines lucrativos deberán destinar el resto de las rentas e ingresos a incrementar la dotación patrimonial o las reservas.

El plazo para el cumplimiento de este requisito será el comprendido entre el inicio del ejercicio en que se hayan obtenido las respectivas rentas e ingresos y los cuatro años siguientes al cierre de dicho ejercicio, salvo que se trate de rentas obtenidas en la transmisión onerosa de valores cuya antigüedad supere los tres años en cuyo caso el plazo será de diez años.

2.º Que la actividad realizada no consista en el desarrollo de explotaciones económicas ajenas a su objeto o finalidad estatutaria. Se entenderá cumplido este requisito si el volumen de operaciones del ejercicio correspondiente al conjunto de las explotaciones económicas no exentas ajenas a su objeto o finalidad estatutaria no excede del 40 por 100 del volumen de operaciones total de la entidad, siempre que el desarrollo de estas explotaciones económicas no exentas no vulnere las normas reguladoras de defensa de la competencia en relación con empresas que realicen la misma actividad.

Foru arau honen ondorioetarako, irabazi asmorik gabeko entitateek ustiapen ekonomikoa egiten dutela ulertuko da bere kontura produkzio baliabideak edo giza baliabideak, edo horietako bakar bat, antolatzen dituztenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan esku hartzeko asmoz. Entitatearen higiezinaren ondarea errentan ematea ez da hartuko ustiapen ekonomikotzat, ondorio horietarako.

3. Sortzaileak, bazkideak, patronuak, estatutu-ordezkarriak, gobernu organoetako kideak eta horietako edozeinen ezkontideak, Izatezko bikoteei buruzko 2003ko maiatzaren 7ko 2/03 Legearen arabera osatutako izatezko bikoteko kideak edo laugarren mailarainoko ahaideak, hori barne, ez izatea entitateek egindako jardueren hartzaile nagusiak edo haien ez egokitzeta zerbitzuen onura jasotzeko baldintza berezirik.

Aurreko paragrafoan jasotakoa ez zaie aplikatuko ikerketa zientifikoarekin eta garapen teknologikoarekin lotutako jardueri, ez eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, hurrenez hurren 20. artikuluaen bat apartatuko 8 eta 13 zenbakietan aipatutako gizarte laguntzarekin edo kirolarekin lotutako jardueri ere. Era berean, hura ez zaie aplikatuko Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legeak edo bidezko autonomia erkidegoaren legeak hurrenez hurren jasotako exigentziak betetzen dituzten Euskal Kultur Ondarearen edo Espainiako Ondare Historikoaren ondasunak artatzea eta zaharberritzea xede duten fundazioei ere.

4. Patronuari, estatutu-ordezkaritari eta gobernu organoko kideari lotutako karguak doakoak izatea. Nolanahi ere, eginkizun hori betetzeak sortzen dituen gastuak ordaintzeko eskubidea izango da, horiek behar bezala frogatuta daudenean. Kontzeptu hura dela-eta jasotako kopuruak ezin izango dira handiagoak izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian zergapetu gabeko dietatzat hartuak izateko jasotzen diren mugak baino.

Herri onurakotzat hartutako elkarteen kasuan, ordezkari organoek ordainsariak jaso ahal izango dituzte; ez, ordea, fondo edo diru laguntza publikoen kontura.

Patronuek, estatutu-ordezkariek eta gobernu organoko kideek entitatearen ordainsariak jaso ahal izango dituzte zerbitzuan emateagatik, barne sartuta lan harremanaren barruan emandako zerbitzuak, patronatuko edo ordezkari organoko kide gisa dagozkien eginkizunak betetzeak dakartzan zerbitzuez bestelakoak direnean, baldin eta entitatearen arauetan jasotako baldintzak betetzen badira. Pertsona horiek ezin izango dute parte hartu entitatearen emaitza ekonomikoetan, ez beren kabuz eta ez tarteko pertsona edo entitatearen bidez ere.

Zenbaki honetan jasotakoa merkataritza-sozietate partizipatuetan entitatea ordezkatzeko duten administratzaileei ere aplikatuko zaie, salbu administratzaile gisa jasotako ordainsariak ordezkari entitateari itzultzen badira.

Hori gertatzen denean, administratzaileak jasotako ordainsaria salbuetsita egongo da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik, eta ez da derrigorrezkoa izango zerga horren kontutako atxikipenik egitea.

5. Entitatea deseginez gero, ondare osoa ematea foru arau honek 18.etik 26.era bitarteko artikuluetan, biak barne, jasotako ondorioetarako mezenasgoaren entitate onuraduntzat hartutako entitateetako bati edo, bestela, interes orokorreko xedeak dituz-

A efectos de esta Norma Foral, se considera que las entidades sin fines lucrativos desarrollan una explotación económica cuando realicen la ordenación por cuenta propia de medios de producción y de recursos humanos, o de uno de ambos, con la finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios. El arrendamiento del patrimonio inmobiliario de la entidad no constituye, a estos efectos, explotación económica.

3.º Que los fundadores, asociados, patronos, representantes estatutarios, miembros de los órganos de gobierno y los cónyuges, parejas de hecho constituidas con arreglo a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho o parientes hasta el cuarto grado inclusive de cualquiera de ellos, no sean los destinatarios principales de las actividades que se realicen por las entidades, ni se beneficien de condiciones especiales para utilizar sus servicios.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no se aplicará a las actividades de investigación científica y desarrollo tecnológico, ni a las actividades de asistencia social o deportivas a que se refiere el artículo 20, apartado Uno, en sus números 8.º y 13.º, respectivamente, del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, ni a las fundaciones cuya finalidad sea la conservación y restauración de bienes del Patrimonio Cultural Vasco o del Patrimonio Histórico Español que cumplan las exigencias, respectivamente, de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco o de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español o de la Ley de la respectiva Comunidad Autónoma que le sea de aplicación.

4.º Que los cargos de patrono, representante estatutario y miembro del órgano de gobierno sean gratuitos, sin perjuicio del derecho a ser reembolsados de los gastos debidamente justificados que el desempeño de su función les ocasione, sin que las cantidades percibidas por este concepto puedan exceder de los límites previstos en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para ser consideradas dietas exceptuadas de gravamen.

En el supuesto de asociaciones declaradas de utilidad pública los órganos de representación podrán percibir retribuciones siempre que no lo hagan con cargo a fondos y a subvenciones públicas.

Los patronos, representantes estatutarios y miembros del órgano de gobierno podrán percibir de la entidad retribuciones por la prestación de servicios, incluidos los prestados en el marco de una relación de carácter laboral, distintos de los que implica el desempeño de las funciones que les corresponden como miembros del Patronato u órgano de representación, siempre que se cumplan las condiciones previstas en las normas por las que se rige la entidad. Tales personas no podrán participar en los resultados económicos de la entidad, ni por sí mismas, ni a través de persona o entidad interpuesta.

Lo dispuesto en este número será de aplicación igualmente a los administradores que representen a la entidad en las sociedades mercantiles en que participe, salvo que las retribuciones percibidas por la condición de administrador se reintegren a la entidad que representen.

En este caso, la retribución percibida por el administrador estará exenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y no existirá obligación de practicar retención a cuenta de este Impuesto.

5.º Que, en caso de disolución, su patrimonio se destine en su totalidad a alguna de las entidades consideradas como entidades beneficiarias del mecenazgo a los efectos previstos en los artículos 18 a 26, ambos inclusive, de esta Norma Foral, o a

ten eta fundazio izaera ez duten entitate publikoei. Era berean, zirkunstantzia hori espresuki jaso behar da desegindako entitatearen fundazio-negozioan edo estatutuetan. Irabazi asmorik gabeko entitate horiei aplikatuko zaie Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 90. artikularen 1 apartatuko c) letraren kasurako jasotzen duen zerga erregimena.

Inoiz ere ez dira hartuko irabazi asmorik gabeko entitate-zat, foru arau honen ondorioetarako, iraungitze kasuetan ondare eman duenari edo horren oinordekoei edo legatudunei itzultzea baimentzen duen arau juridikoak dituzten entitateak, salbu ondare itzultzen bazaio mezenasgoaren entitate onuradunetako bati foru arau honek 18.etik 26.era bitarteko artikuluetan, biak barne, jasotako ondorioetarako

6. Urtean behin txosten ekonomikoa egitea. Txostenean, ekitaldiko sarrerak eta gastuak zehaztu behar dira, kategoría eta proiektuen arabera bereizita, bai eta merkataritza-entitateetan duten partaidetza portzentajea ere.

Aplikaziozko kontabilitate araudiari jarraituz urtean behin txostena egitera behartuta dauden entitateek zenbaki honetan aipatutako informazioa jaso beharko dute txosten horretan.

Arau bidez, txosten ekonomikoa horren edukia, aurkezpen epea eta organo jasotzailea jasoko dira.

6. artikulua. Zerga helbidea.

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga helbidea eta sozietate helbidea bat etorriko dira, baldin eta azken horretan entitatearen administrazio kudeaketa eta zuzendaritza benetan zentralizatuta badaude. Bestela gertatuz gero, kudeaketa edo zuzendaritza horien tokia izango da zerga helbidea.

Aurreko irizpideen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, entitateek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, baldin ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan edukirik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa badute beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

II. KAPITULUA. SOZIETATEEN GAINEN ZERGA

7. artikulua. Aplikaziozko araudia.

Kapitulu honetan jasota ez dauden arloetan, Sozietate Zergaren araudia aplikatuko zaie irabazi asmorik gabeko entitateei.

8. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita daude foru arau honetan aipatzen diren irabazi asmorik gabeko entitateen honelako errentak:

1. Ondoko sarreretatik datozenak:

a) Entitatearen xedeetan laguntzeko eratzean edo geroago jasotako emariak, barne sartuta ondare-hornidura gisa egindako ekarpen edo dohaintzak, bai eta foru arau honek 26. artikuluan araututako kolaborazio enpresarialeko hitzarmenei esker eta Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1998 Lege Orokorrak aipatutako babes publizitarioko kontratuei esker jasotako diru laguntzak ere.

b) Bazkide, laguntzaile edo ongileek ordaindutako kuotak, baldin eta bat ez badatoz salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoko batetik eratortitako prestazioa jasotzeko eskubidearekin.

entidades públicas de naturaleza no fundacional que persigan fines de interés general, y esta circunstancia esté expresamente contemplada en el negocio fundacional o en los estatutos de la entidad disuelta, siendo aplicable a dichas entidades sin fines lucrativos el régimen tributario previsto para el supuesto de la letra c) del apartado 1 del artículo 90 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

En ningún caso tendrán la condición de entidades sin fines lucrativos, a efectos de esta Norma Foral, aquellas entidades cuyo régimen jurídico permita, en los supuestos de extinción, la reversión de su patrimonio al aportante del mismo o a sus herederos o legatarios, salvo que la reversión esté prevista en favor de alguna entidad beneficiaria del mecenazgo a los efectos previstos en los artículos 18 a 26, ambos inclusive, de esta Norma Foral.

6.º Que elaboren anualmente una memoria económica en la que se especifiquen los ingresos y gastos del ejercicio, de manera que puedan identificarse por categorías y por proyectos, así como el porcentaje de participación que mantengan en entidades mercantiles.

Las entidades que estén obligadas en virtud de la normativa contable que les sea de aplicación a la elaboración anual de una memoria deberán incluir en dicha memoria la información a que se refiere este número.

Reglamentariamente, se establecerán el contenido de esta memoria económica, su plazo de presentación y el órgano ante el que debe presentarse.

Artículo 6. Domicilio fiscal.

El domicilio fiscal de las entidades sin fines lucrativos será el del lugar de su domicilio social, siempre que en él esté efectivamente centralizada la gestión administrativa y dirección de la entidad. En otro caso, dicho domicilio será el lugar en que se realice dicha gestión y dirección.

Cuando no pueda determinarse el lugar del domicilio fiscal, de acuerdo con los criterios anteriores, se entenderá que las entidades tienen su domicilio fiscal en Gipuzkoa cuando, teniendo en el País Vasco el mayor valor de su inmovilizado, tengan en el Territorio Histórico de Gipuzkoa un valor de su inmovilizado superior al que tengan en cada uno de los otros dos Territorios Históricos.

CAPITULO II. IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

Artículo 7. Normativa aplicable.

En lo no previsto en este Capítulo, será de aplicación a las entidades sin fines lucrativos la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

Artículo 8. Rentas exentas.

Las rentas obtenidas por entidades sin fines lucrativos a que se refiere la presente Norma Foral están exentas del Impuesto sobre Sociedades en los siguientes supuestos:

1.º Las derivadas de los siguientes ingresos:

a) Los donativos y donaciones recibidos para colaborar en los fines de la entidad, incluidas las aportaciones o donaciones en concepto de dotación patrimonial, en el momento de su constitución o en un momento posterior, y las ayudas económicas recibidas en virtud de los convenios de colaboración empresarial regulados en el artículo 26 de esta Norma Foral y en virtud de los contratos de patrocinio publicitario a que se refiere la Ley 34/1998, de 11 de noviembre, General de Publicidad.

b) Las cuotas satisfechas por los asociados, colaboradores o benefactores, siempre que no se correspondan con el derecho a percibir una prestación derivada de una explotación económica no exenta.

c) Subentzioak, salbu salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoak finantzatzera zuzendutakoak.

2. Entitatearen ondare higikor eta higiezinetik datozen errentak, hala nola: Dibidenduak eta sozietateen mozkinetako partaidetzak, interesak, kanonak eta alokairuak.

3. Ondasun edo eskubideak edozein titulu bidez eskuratuz edo eskualdatuz lortu diren errentak, barne sartuta entitate bat deseginez eta likidatuz lortutakoak.

4. Ondorengo artikuluan aipatutako ustiapen ekonomiko salbuetsiak gauzatzean lortutako errentak.

5. Zerga araudiari jarraituaz, irabazi asmorik gabeko entitateei esleitu edo egotzi ahal zaizkien errentak, baldin eta artikuluko honen aurreko apartatuetako batean sartutaoerrenta salbuetsietatik badatoz.

9. artikulua. Ustiapen ekonomiko salbuetsiak.

Sozietate Zergatik salbuetsita daude irabazi asmorik gabeko entitateek ondorengo ustiapen ekonomikoetatik lortzen dituzten errentak:

1. Entitatearen berriazko xedea betetzeko gauzatzen diren ustiapen ekonomikoetatik lortutako errentak.

2. Salbuetsitako ustiapen ekonomikoen, edo irabazi asmorik gabeko entitatearen helburu estatutarioak edo xedea betetzeko jardueren, lagungarri edo osagarri diren ustiapen ekonomikoetatik datozen errentak.

Ustiapen ekonomikoan ez dira lagungarri edo osagarri soilak direla joko, horrelako ustiapenen eragiketa bolumena, gutxira, entitatearen eragiketa bolumen osoaren %25 baino gehiago baldin bada, dagokion zerga ekitaldian.

3. Garrantzi txikiko ustiapen ekonomikoetatik datozen errentak. Horrelakotzat hartuko dira gehienera 30.000 euroko eragiketa bolumena dutenak ekitaldian.

10. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea.

1. Irabazi asmorik gabeko entitateen Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik etorritako errentak bakarrik sartuko dira.

2. Ez dira gastu kengarrizat hartuko, Sozietateen gaineko Zergaren arautegi orokorrak ezarritakoez gainera, honako hauek:

a) Errenta salbuetsiei soilik egoztekoak diren gastuak.

Zati batean salbuetsi gabeko errentei egoztekoak diren gastuak neurri honetan izango dira kengarriak, zehazki: Entitatearen eragiketa bolumen osoaren aldean salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen ekitaldiko eragiketa bolumenak egiten duen portzentaiaren neurrian.

b) Kargapeko ustiapen ekonomikoei atxikiak ez diren ondare elementuen amortizaziorako erabilitako diru kopuruak.

Zati batean salbuetsitako jardueri atxikitako ondare elementuen kasuan, amortizazioan erabilitako diru kopuruak ez dira kengarriak izango, zehazki, ondare elementua jarduera horri atxikita dagoen portzentaiaren neurrian.

c) Salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen emaitzen eta, bereziki, soberakinen aplikazio diren diru kopuruak.

c) Las subvenciones, salvo las destinadas a financiar la realización de explotaciones económicas no exentas.

2.º Las procedentes del patrimonio mobiliario e inmobiliario de la entidad, como son los dividendos y participaciones en beneficios de sociedades, intereses, cánones y alquileres.

3.º Las derivadas de adquisiciones o de transmisiones, por cualquier título, de bienes o derechos, incluidas las obtenidas con ocasión de la disolución y liquidación de la entidad.

4.º Las obtenidas en el ejercicio de las explotaciones económicas exentas a que se refiere el artículo siguiente.

5.º Las que, de acuerdo con la normativa tributaria, deban ser atribuidas o imputadas a las entidades sin fines lucrativos y que procedan de rentas exentas incluidas en alguno de los apartados anteriores de este artículo.

Artículo 9. Explotaciones económicas exentas.

Están exentas del Impuesto sobre Sociedades las rentas obtenidas por entidades sin fines lucrativos que procedan de las siguientes explotaciones económicas:

1.º Las que procedan de las explotaciones económicas que se desarrollen en cumplimiento de su objeto o finalidad específica.

2.º Las que procedan de las explotaciones económicas que tengan un carácter meramente auxiliar o complementario de las explotaciones económicas exentas o de las actividades encaminadas a cumplir los fines estatutarios o el objeto de la entidad sin fines lucrativos.

No se considerará que las explotaciones económicas tienen un carácter meramente auxiliar o complementario cuando el volumen de operaciones del ejercicio correspondiente al conjunto de ellas exceda del 25 por 100 del volumen de operaciones total de la entidad.

3.º Las que procedan de las explotaciones económicas de escasa relevancia. Se consideran como tales aquellas cuyo volumen de operaciones del ejercicio no supere en conjunto 30.000 euros.

Artículo 10. Determinación de la base imponible.

1. En la base imponible del Impuesto sobre Sociedades de las entidades sin fines lucrativos sólo se incluirán las rentas derivadas de las explotaciones económicas no exentas.

2. No tendrán la consideración de gastos deducibles, además de los establecidos por la normativa general del Impuesto sobre Sociedades, los siguientes:

a) Los gastos imputables exclusivamente a las rentas exentas.

Los gastos parcialmente imputables a las rentas no exentas serán deducibles en el porcentaje que represente el volumen de operaciones obtenido en el ejercicio de explotaciones económicas no exentas respecto del volumen de operaciones total de la entidad.

b) Las cantidades destinadas a la amortización de elementos patrimoniales no afectos a las explotaciones económicas sometidas a gravamen.

En el caso de elementos patrimoniales afectos parcialmente a la realización de actividades exentas, no resultarán deducibles las cantidades destinadas a la amortización en el porcentaje en que el elemento patrimonial se encuentre afecto a la realización de dicha actividad.

c) Las cantidades que constituyan aplicación de resultados y, en particular, de los excedentes de explotaciones económicas no exentas.

11. artikulua. Balorazio arauak.

Irabazi asmorik gabeko entitate bat desegitean geratutako ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak, irabazi asmorik gabeko beste entitate bati eskualdatzen zaizkionean, foru arau honetako 5. artikuluko 5. zenbakian aurreikusitakoa aplikatuz, zerga ondorioei dagokienez, entitate hartzaileari baloratuko zaizkio, desegindako entitatean eskualdaketa egin baino lehen zeuzkaten balio berekin, eta eskuratze datak ere desegindako entitatean zituztenak gordeko dira.

12. artikulua. Karga tasa.

Salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik lortutako erren-tei dagokien oinarri ezargari positiboari % 10eko karga tasa ezarriko zaio.

13. artikulua. Kontabilitate obligazioak.

Irabazi asmorik gabeko entitateek Sozietate Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik errentak lortzen dituztenean, Sozietate Zergaren arauetan aurreikusitako kontabilitate obligazioak izango dituzte. Entitate horien kontabilitatea eramateko moduak bide eman behar du salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoek dagozkien sarrerak eta gastuak zein diren identifikatzeko.

14. artikulua. Atxikipenari lotu gabeko errentak.

Foru arau honen indarrez salbuetsiak diren errentak ez daude ez atxikipenari ez konturako sarrerari lotuta. Erregelamendu bidez zehaztuko da irabazi asmorik gabeko entitateek izango duten egiaztatze prozedura, atxikitze obligaziotik kanpo geratzeko ondorioetarako.

15. artikulua. Aitortzeko obligazioa.

Titulu honetan ezarritako zerga erregimena aukeratzeko duten entitateek, beren errenta guztiak, salbuetsiak eta salbuetsi gabek, Sozietateen gaineko Zergan aitortzeko obligazioa dute.

16. artikulua. Zerga erregimen berezia aplikatzea.

1. Erregelamendu bidez ezarriko da noiz eta nola sartu ahal izango diren irabazi asmorik gabeko entitateak titulu honetan ezarritako zerga erregimen berezian.

Behin aukera hori gauzatutakoan, entitatea erregimen horri lotuta geratuko da hurrengo zerga ekitaldietan ere, foru arau honetako 5. artikuluan ezarrita dauden betebeharrak betetzen dituen eta erregimen horri uko egiten ez dion bitartean; uko egitekotan, nolana ere, erregelamenduz ezarriko den eran egin beharko du.

